


Tailerrak
Mintzaldiak
Ate irekitzeak
Zine-eztabaidak
Ibilaldiak
Erakusketak

8 → 16
urria

KLI^{MA}A

2022

Ipar Euskal Herriko
klima astea



Espazioa
(bir)konkista
dezagun

Lurraldea
(berriz)antolatzeko!


 Pays
Basque
EUSKAL
HERRIA

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE
ELKARGOA

Euskal Hirigune Elkargoak KLIMA antolatzen du, Ipar Euskal Herriko klimaren astea, urriaren 08tik 16ra bitartean. Lurraldeko eragile anitzen partaidetzari esker, 50etik gora hitzordu proposatzen dira lurralde osoan zehar, han-hemenka, lurraldearen antolaketaz eta begiramenaz mintzatzeko eta, hartara, espazioaren (berr)eskuratzeaz, klima erronka altxatzeko asmoz!



Lurraldea antolatu eta artatzea: ikusmolde orokorra



Gure itsas hegia eta gure ur-bazterrak babestea



ReEraikia dena eta lur funtsen erabilera pentsatzea



Ongi jatea, osasuntsu eta tokikoa



Lekualdaketa eztiak



Gure hondakinen eragina gutxitzea



Ura hobe partekatzea



Naturari leku egiteak



Lurralde antolaketa, energia eta ekologia trantsiziorako ezinbesteko tresna

Lurraldearen antolaketa bertutetsua Ipar Euskal Herriko Klima Planaren ardatz nagusietako bat da, bai eta, erronkak hain direnez handi, lurralde-proiektuaren ardatz nagusietako bat ere.

Alta, horrek berekin dakarren ekuazioa ez da, inolaz ere, begien bistakoa. Ipar Euskal Herriaren ezaugarriak dira oso erakargarri izatea eta jende gehien-gehienentzat eskuragarri litezkeen bizitegien eskasia izatea. Mobilizazio herritar eta politiko azkarra sortu da gaiaren inguruan eta Euskal Elkargoak hainbat erabaki hartu ditu jadanik tokiko familiei zuzenduriko urte osorako bizitegien alde: Tokiko Bizileku-Programa, turismorako bizitegi mublaturen araudia, alokairuen mugatzea... Horrekin batera, arras murriztu behar dugu lurren artifiziializatzea bihar ere bizitzeko moduko lurraldea bermatuko nahi badiegu gure biztanleei.


KLIMA 2022 asteak Ipar Euskal Herria antolatzera eta zaintzera gomitzen duen leoa darama eta, itxuraz kontrajarriak diruditen bi zeregin horien gainean hausnar dezagun eta elkarrekin etorkizun jasagarri eta desiragarri baterako aterabideak atzeman ditzagun du asmoa.

Herri barneak dinamizatzea baserrialdea desitxuratu gabe, eraikin zaharrak arduraz zaharberritzea, beroguneak saihestea, hirian naturari leku handiagoa eskaintzea, eraikuntzarako edo industriarako material bertutetsuak hautatzea, bioklimatismoa garatzea, gai horiek guztiak landuko dira partekatzeke, informatua izateko, hezteko, formatzeko, bai eta ekiteko, bistan dena!

Aurrekaririk gabeko klima larrialdiko testuinguru batean, aurten, Ipar Euskal Herrian uholdeak eta udan idortea ukan ditugularik, leku publikoen antolaketa erantzukizunez eta kontzientziaz birpentsatu eta irudikatu behar dugu.

Jean-René ETCHEGARAY
Euskal Elkargoaren lehendakaria

Martine BISAUTA
Trantsizio ekologiko eta energetikoa & Herritar hirigunearen lehendakariordea



URRIAK
8
LAR.



Oinezko aldizkako lasterketa, zero hondakin erronka

HAZPARNE – Kirolen lautada

→8:30 - 13:00

Kirol jarduerak – Ohartarazte jarduerak - Lantegiak - Erakusketa

Oinezko aldizkako lasterketa, zero hondakin erronka, eta pedagogia lantegiak honako hauekin: Bil Ta Garbi, Trail runner FOUNDATION, Water Family eta Itsasaldeko Aturri Behereko Sindikatu Mistoa.

Antolaketa: Urtxintxak Hasparren Athlétisme (UHA)
Eguraldi txarra bada, Mendeala aretora babestea.
Informazioak: Facebook Urtxintxak Hasparren Athlétisme



Bidasoa, ur ertzean

BIRIATU

→9:30 - 17:00

Ibilaldia

Ezagutze ibilketa Xoldokogaina mendi mazeletan, Bidasoaren ertzeetaraino, lurraldeko zenbait eragilek aurkezturik, ondare horren babesteko egin direnak azalduz. Ibilketa, piknika, eta ur gaineko ibilaldia kanoe-kayakean (hautuzkoa).

Antolaketa: Biriatuko Herria eta IEZI Euskal Itsasbazterra
Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua.
Argibideak eta izen emateak: IEZI Euskal Itsasbazterraren webgunea / 05 59 74 16 18



Errobin, guztiak bizikletaz klimaren alde: Goizeko bizikleta ibilaldia

ARRANGOITZE, BASUSARRI, KANBO, EZPELETA, HALTSU, ITSASU, JATSU, LARRESORO, LUHUSO, ZURAUDE, UZTARITZE

→9:30 - 11:00

Ibilaldia

Bizikleta taldeak abiatuko dira Errobiko 11 herrietako herriko etxe bakoitzetik eta Kanboko St Joseph parkean bilduko dira.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE), Pirinio Atlantikoen Departamendua, Euskal Herri-Aturri Mugikortasunen Sindikatua (EHAMS) eta Errobiko herriak
Argibideetarako: Errobi herrien webguneak / contact.errobi@communaute-paysbasque.fr



Errobin, guztiak bizikletaz klimaren alde

KANBO – St Joseph parkea, Bernadette Jougleux azoka

→11:00 - 19:00

Bizikleta eguna

Bizikleta mantenimendu lantegiak, bizikletaz jardutea, argindar bizikleta entseatzea, jolasak, bizikleta ibilbideei buruz herritarren elkar aditzea, klimaren gaineko ohartarazte ludikoa, argazki lehiaketa, musikazko animazioa... bizikletaren alde guztiak ezagutzeko. Eguerdiko ahamena eta, arratsaldean, edariak eta pastizak guztientzat (ordainduz).

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE), Pirinio Atlantikoen Departamendua, Euskal Herri-Aturri Mugikortasun Sindikatua (EHAMS), Errobiko herriak, La Fresque du Climat eta Clavette & Cie
Argibideak: Errobiko herrien webguneak / contact.errobi@communaute-paysbasque.fr



Euskal Herriko zentral hidroelektrikoen atek zabalik

DONIBANE GARAZI – Herri barneatre

→10:00 - 12:00 / 15:00 - 17:00

Ateak zabalik

Lurraldean diren antolaketa hidroelektrikoen ezagutzea, Euskal Herriko ibaiak baliatuz tokiko energia berriztagarria ekoizten duten hainbat zentral hidroelektriko bisitatuz: Instalazioen bisita, ekoizleen taldekako urraspidearen azalpena. Uharteko Eiheraren bisita. Jean-Pierre Galant gidari.

Antolaketa: Ipar Euskal Herriko Hidroelektrizitate ekoizleen batasuna
Izena eman behar da.
Argibideak eta izen emateak: 06 32 93 19 61



Bizikleta ateraldia orentzat

AHURTI, URKETA, LEHUNTZE, MUGERRE, HIRIBURU, MILAFRANGA

→10:00 - 12:00


Ibilaldia

Txirrinda ateraldia, Errobi-Aturriko herrietatik abiatu eta Baionako Floridaraino. Heldu ondoren, giro atseginean partekatu tartea izanen da. Ibilbideei eta ordutegiei buruzko argibide gehiagorako, dagozkien herrietako herriko etxeetara jo.


Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Joateko ibilbideetan soilik izanen dira laguntzaileak eta parte hartzaileen erantzukizun bakarraren pean dira ibilbideak.
Argibideak: Errobi-Aturriko herrien webguneak



01



02



URRIAK

8

LAR.



Mendi garbi eragiketa Ziburu Mendin

ZIBURU

→10:00

Hondakin bilketa

Jardunaldi ekologiko eta giro atseginekoa, ororentzat, menditik hondakinak kentzeko. Herriak piknika eskainiko du. ibilketa oinetakoak, ur xahakoa eta baratze eskularruak ekarri.

Antolaketa: Ziburu herria

Hitzordua 10:00etan, Trabeno aparkalekuan. Izena eman behar da.

Argibideak eta izen emateak: m.surzur@mairiedeciboure.com



03



Euskal lur funtsen erabilera gatazka baterantz?

BAIONA – Manu Robles-Arangiz Fundazioa, Cordeliers karrika 20

→10:00 - 12:00

Mahai ingurua

Lur baliabideen behar gero eta handiagoei, erabilera gatazkei buruzko eta energia fosil gutxiago, energia egur gehiago, bioaniztasunerako oihan gehiago, karbono bahiketa gehiago, elikadura autonomia gehiago –betiere kabalak atxikiz eta tokiko material bioekin bizitegi gehiago sortuz- aurreikusten duten euskal elkargoaren plangintza dokumentuei buruzko solasaldiak.

Antolaketa: Bizi!

Argibideak: n.servant@hotmail.fr / 06 51 62 72 27



Bioaniztasuna hirian – Guztiok eragile!

BIDARTE

→10:00 - 12:00

Gunearen bisita

«Bioaniztasun leku» baten bisita gidatua, bioaniztasuna hirian kokatzen laguntzeko.

Antolaketa: Bio Divers Cité

Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua (20). Hitzordua lehen mailako eskolaren sargian. Argibideak eta izen emateak: Bio Divers Cité webgunea / animations.bdc@gmail.com



Aturriko bartak eta haien funtzionamendua txirrindaz ezagutzea

GIXUNE – Arrokesko aintzira

→10:00 - 13:00


Ibilaldia

Gixuneko eta Samatzeko bartak, ibai ertzak eta haien bioaniztasuna eta uholdeak kudeatzeko asmatu antolaketak txirrinda bideetan ibiliz txirrindaz ezagutzea. Hamabost bat kilometro luze den ibilbideari esker, Arrokesko aintziraren eta Samatzeko aintziraren arteko txirrinda antolaketak ezagutzen ahalko dira. Ibilaldia amaitzean, tokiko produktuak dastatu ahalko dira. Gero, animazioa izanen da: «La Fresque du Climat» 14:00etan.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta Itsasaldeko Aturriren eta haren Ibaadarren Ertzak Babesteko Sindikatua

Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua.

Argibideak eta izen emateak: 05 59 56 05 11



Euskal Herriko zentral hidroelektrikoen atek zabalik

BAIGORRI – Lakaenea lekua

→10:30

Ateak zabalik

Lurraldean diren antolaketa hidroelektrikoen ezagutzea, Euskal Herriko ibaiak baliatuz tokiko energia berriztagarria ekoizten duten hainbat zentral hidroelektriko bisitatuz: Instalazioen bisita, ekoizleen taldekako urraspidearen azalpena. Laka zentralaren bisita. Gidaria, Jean-Louis Harignordoquy.

Antolaketa: Ipar Euskal Herriko Hidroelektrizitate ekoizleen batasuna

Izena eman behar da. Bisita euskaraz.

Argibideak eta izen emateak: harignordoquy.jean-louis@wanadoo.fr / 05 59 37 43 93



Fresque du Climat

GIXUNE – Arrokesko aintzira

→14:00 - 17:00

Lantegia

Lantegi ludiko eta parte hartze bidezkoa, taldearen adimenean oinarritua, klima aldaketari buruz eta haren zergatiei eta ondorioei buruz ohartarazteko. Animazio hori Aturri eta Biduzeko bartetan egin ibilaldiaren ondoren.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta La Fresque du Climat

Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua.

Argibideak eta izen emateak: 05 59 56 05 11

04



URRIAK

11
AR.



Gure lurraldeetako oihanak eraikuntza iraunkorren zerbitzura

IZURA-AZME – Herriko Etxea

→8:45 - 12:45

Mintzaldia – Gunearen bisita

Eraikin publikoetan tokiko egurra erabiltzeari buruzko ekitaldia: eskuhartzea, tresnen eta proiektuen aurkezpena eta oihanen hobetze bidean den herri lursail baten bisita.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta Akitania Berriko URCOFOR Hautetsientzat, kolektibitateetako langileentzat, profesionalentzat eta ikasleentzat. Izena eman behar da. Argibideak eta izen emateak: Akitania Berriko Oihan Kolektibitateen webgunea / marion.duprat-nieto@communesforestieres.org / 06 67 63 53 71



Klima aldaketa eta kostaldeen higadura

BIARRITZ – Euskaldunen kostaldea

→11:00 - 13:30

Ibilaldia – Ohartarazte ekintza

Ibilaldia itsas behean, Euskaldunen Kostaldetik Bidarteraino, higaduraren bilakaera ikusteko, bai eta gizakiak naturaren gainean duen eragina, dauden hornikuntzen beharra eta ohartzearen garrantzia.

Antolaketa: BIARRITZ – Euskaldunen kostaldea – 11:00etatik 13:30era Denekin elkarte eta Françoise LACOIN Izena eman behar da. Argibideak eta izen emateak: Denekin elkartaren webgunea / 06 24 35 00 77



H2Ome erakusketa: uraren jokagaiak munduan

MAULE LEXTARRE – Mediateka, Zerbitzuanitzeko zentroa

→14:00 - 18:00

Erakusketa

Les Petits Débrouillards elkartearen erakusketa ura munduan banatzen den modua ulertzeko, hartaz ludikoki eta zientifikoki gogoetatzeko, bai eta ura Frantzia eta beste lekuetan kudeatzeko moduez edota uraren funtzionamendu ekologikoan gizakiek duten eraginetaz gogoetatzeko ere.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Argibideak: 05 59 28 78 888



Fresque du Climat: Klima jokagaiak hobe ulertzea

ITSASU – Errobi Eremuko Elkargoaren etxean

→18:00 - 21:00

Lantegia

Lantegi ludiko eta parte hartze bidezkoa, taldearen adimenean oinarritua, klima aldaketari buruz eta haren zergatiari eta ondorioei buruz ohartarazteko.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta La Fresque du Climat Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua (14). Argibideak eta izen emateak: Fresque du Climat elkartearen erakusgunean, urriaren 08 larunbatean, Kanboko Txirinda jardunaldian contact.errobi@communaute-paysbasque.fr



«Natura», artatzen zaituen filma

BAIONA – L'Atalante

→18:30 - 20:30

Zine-eztabaida

«Natura», filmaren proiektzioa. Naturak gizakiari, haren osasunari eta orekari dakartzkien onuren gaineko Pascale d'Erm eta Bernard Guerrini zinegileen galdeketa-filma. Gero, eztabaida eginen da lurraldeko profesional eta hautetsiek, bertan izanen delarik Alix Cosquer, ingurumen psikologian ikerlari ari dena Ekologia Funtzional eta Ebolutiboaren Zentroan.

Antolaketa: Buru Osasunerako Tokiko Batzordea, Tokiko Osasun Kontratua, Addiction France elkarte, Pirinio Atlantikoen Departamendua, Euskal Kostaldeko Ospitalegunea eta Baionako mediateka Leku kopuru mugatua. Argibideak: clsm@ch-cotebasque.fr / 05 59 44 42 20



Eraikin zaharren berriztatzea: aterabide ekologiko eta ekonomikoa?

DONAPALEU – Saint-Louis gunea

→19:00 - 21:00

Mintzaldi-eztabaida

Encore kolektiboa eraikin zaharren berriztapen proiektuei ekiteko moldea kordokatzen duen arkitektura agentzia da. Bizitegien eskasia eta lurren gehiegizko artifizialtze testuinguru honetan, Encore kolektiboak horrek jadanik eraikia dena hobe kontuan har dadila proposatzen du eta aurretik hor denaren ahalmen eta joritasuna ematen ditu agerian. Ekonomia eta ekologia urritasuna eta ingurumena hobe kontuan hartzea eta hobe ulertzea; jokagai horiek aztertuko dira mintzaldi horretan, hainbat berriztapen adibide azalduz, bai eta laborantzako, paisaia jokamoldeetako eta eguneko esperientziatiko adibideak ere. Ekitaldiaren bukaera aldean, janari hotzeko mahaia.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta Encore taldea
Argibideak: Euskal Elkargoaren webgunean KLIMA astearen orrialdea


04



05



URRIAK
12
AZ.



Arrisku antropikoetara egokitzea eta bioaniztasuna berreskuratzea: Trabeneko landaketak

AZKAINA

→9:00 - 11:00

Ibilaldia – Gunearen bisita

Trabeneko landaketen pedagogia ibilketa azaldua.

Antolaketa: Azkaine herria eta Oihanen Nazio Erakundea (ONF)
Hitzordua: Ibilketen aparkalekuan, Trabenean.
Argibideak: environnement@mairie-ascaïn.fr



Laborantza, oihangintza eta baratzegintza bisita

UHARTE-GARAZI – Larraldira etxea, Tokotegia bidea 245

→9:00 - 13:00

Ibilaldia - Gunearen bisita

SCEA Ibarlako mizpirondoak etxaldearen bisita, 2018an, Zohartzte gainetan landatu laborantza oihangintza mistoa ezagutzeko, bai eta 2020an landatu akazia oihana eta 2020an landatu tokiko barietateko sagarrondoan bi sagardi, eta etxaldearen sendabelar eta kalamu lantegia.

Antolaketa: SCEA Ibarlako mizpirondoa
Botak ekarri (eguraldia eurtsua bada) edo ibiltzeko oinetako onak.
Argibideak: 06 10 99 46 36



Euskal Herriko zentral hidroelektrikoen atek zabalik

ARROSA – Berrihoko eihera lekua

→10:00

Ateak zabalik

Lurraldean diren antolaketa hidroelektrikoen ezagutzea, Euskal Herriko ibaiak baliatuz tokiko energia berriztagarria ekoizten duten hainbat zentral hidroelektriko bisitatuz: Instalazioen bisita, ekoizleen taldekako urraspidearen azalpena. Berroko zentralaren bisita. Gidaria: Xavier Cabillon.

Antolaketa: Ipar Euskal Herriko Hidroelektrizitate ekoizleen batasuna
Izena eman behar da.
Argibideak eta izen emateak: x.cabillon@wanadoo.fr / 06 20 91 62 600



Bioaniztasunaren alde ohartaraztea

BBIDAXUNE

→10:00 - 16:00h

Ohartarazte ekintza

Pedagogia ateraldia Bidaxune Lurraldeko Ostatatze Gabeko Aisialdi Harrerako haurrentzat: «Aberetxoak» lantegiak (6 urtez pekoentzat) eta arboretum (6 urtetik goitikoentzat), habien eta intsektuentzako etxeen sortzea (irail hastapenetik goiti). Zero hondakin piknika, Bidaxuneko sukalde nagusiak egin eta banatua.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) – Bidaxune Lurraldeko OGAH
Aisialdi harreraren izena emanik diren haurrentzat soilik (3-12 urte).



Euskal Herriko zentral hidroelektrikoen atek zabalik

HALTSU – Haltsuko fabrika hidroelektrikoa

→10:00

Ateak zabalik

Lurraldean diren antolaketa hidroelektrikoen ezagutzea, Euskal Herriko ibaiak baliatuz tokiko energia berriztagarria ekoizten duten hainbat zentral hidroelektriko bisitatuz: Instalazioen bisita, ekoizleen taldekako urraspidearen azalpena. Haltsuko zentralaren bisita. Gidaria: Grégory David.

Antolaketa: Ipar Euskal Herriko Hidroelektrizitate ekoizleen batasuna
Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua (15).
Argibideak eta izen emateak: stephanie.hoegeli@edf.fr / 05 61 89 80 49



H2Ome erakusketa: uraren jokagaiak munduan

MAULE-LEXTARRE – Mediateka, Zerbitzuanitzeko zentroa

→10:00 - 12:30 / 14:00 - 18:00

Erakusketa

Les Petits Débrouillards elkartearen erakusketa ura munduan banatzen den modua ulertzeko, hartaz ludikoki eta zientifikoki gogoetatzeko, bai eta ura Frantzia eta beste lekuetan kudeatzeko moduz edota uraren funtzionamendu ekologikoan gizakiek duten eraginetaz gogoetatzeko ere.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Argibideak: 05 59 28 78 88

06

07

URRIAK
12
AZ.



Hondakinen bilketa jardunaldia

DONIBANE GARAZI

→13:30 - 17:00

Hondakinen bilketa – Ohartarazte ekintza

Hondakinak biltzeko egun erdia gazteentzat (eta hain gazte ez direnentzat) gazteak joaten diren herriko lekuetan: Jai Alai, gazteluko zabaltegia, erromatar zubia, Errobi ertzak.

Antolaketa: Donibane Garaziko herria, gazteen herri biltzarra, herriko ikastetxeak, Euskal Herriko IEZI, eta Avenir Hitzordua Jai Alai aitzinean.
Argibideak: Donibane Garaziko webgunea



Zure osasuna abian emazu

KANBO

→14:00

Ibilaldia - Erakusketa – Lantegiak

Ibilaldia Elorrimendira (abiatzea 14:00etan), kirol, ongizate eta ingurumen lantegiak; erakusketa iragankorra; kamishibai kontaketa eta bertan jateko ahamentxoak.

Antolaketa: Buru Osasunerako Tokiko Batzordea, Pirinio Atlantikoen Departamendua, Euskal Kostaldeko Ospitalgunea eta Euskal Herriko IEZI elkarteak
Argibideak: clsm@ch-cotebasque.fr / 05 59 44 42 20



Uraren kudeaketa eta klima larrialdia

MAULE-LEXTARRE – Zerbitzuanitzeko zentroa
(Irati aretoa)

→18:00 - 20:00

Mintzaldia

Klima larrialdia dela eta ditugun ur beharrak direla, nola ulertu uraren gure kudeaketa? Kontsumoen bilakaera, ur zikloaren aldaketa, muturreko gertakarietara egokitzea, ekonomia jardunetarako ura eskuratzeko aukera, antolaketa egituratzaileak, etab. Aturri Erakundearen, Ur Agentziaren eta Sigom delakoaren parte hartzearekin.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua.
Argibideak eta izen emateak: m.lacazette@communaute-paysbasque.fr
05 59 28 78 93



Mugikortasun aktiboak Amikuzen

AIZIRITZE-GAMUE-ZOHAZTI – Erabilanitzeko aretoa

→19:00 - 20:30

Aurkezpena – Eztabaida

Aurkezpena: Arberatze-Zilhekoa, Behaskane-Laphizketa, Aiziritze-Gamue-Zohazti herrien, Petxoneko eta Larramendiko jardun eremuen, Targako merkataritza gunearen eta Donapaleu hiriaren arteko bide eztien aurkezpena. Aurkezlea: «Atelier Lavigne» bulegoa.

Antolaketa: Arberatze-Zilhekoa, Aiziritze-Gamue-Zohazti, Behaskane eta Donapaleu herriak
Argibideak: 06 98 17 15 66



Bizilekuen eta mugikortasunen ekologia trantsizioko aukeren aurkezpena: Herrikopolis eta Energiesprong

MUGERRE – Haitz Ondoan aretoa

→19:00

Mintzaldi-etzabaida

Klima, energia, bizitegi eta abarreko jokagaiei erantzuteko gai diren eragiketa aukerak aurkezten dituen mintzaldi-etzabaida: ekologia trantsizioko Herrikopolis euskal aukera, eta jadanik eraikiak diren bizitegien berritzeko Energiesprong holandar aukera.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Hautetsientzat (herrietakoak eta elkargokoak) eta pertsona kualifikatuentzat soilik.
Izena eman behar da (urriaren 9 igande arte).
Argibideak eta izen emateak: j.poulain@communaute-paysbasque.fr



Gaztainaren pizkudea Euskal Herrian


HAZPARNE – Hazparnealdeko eremuko
Elkargoaren etxea

→19:30 - 21:30


Mintzaldi-etzabaida

Euskal Herrian gaztainagintzaren berritzearen eragileen arteko topaketa: Gaztainaren adarra garatzeak lurraldeari lekarzkiokoen abantaileri buruzko mintzaldi-etzabaida.


Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Argibideak: 05 59 29 16 47



08



09



URRIAK
13
OG.



H2Omme erakusketa: uraren jokagaiak munduan

MAULE-LEXTARRE – Mediateka, Zerbitzuanitzeko zentroa

→14:00 - 18:00

Erakusketa

Les Petits Débrouillards elkartearen erakusketa ura munduan banatzen den modua ulertzeko, hartaz ludikoki eta zientifikoki gogoetatzeko, bai eta ura Frantzia eta beste lekuetan kudeatzeko moduaz edota uraren funtzionamendu ekologikoan gizakiek duten eraginetaz gogoetatzeko ere.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Argibideak: 05 59 28 78 88



Errecart lizeoaren lursailaren inaugurazioa Arberatze-Zilhekoako baratze partekatuan

ARBERATZE-ZILHEKOA – Berroa etxea

→14:30

Inaugurazioa – Aurkezpena - Gunearen bisita

Errecart institutuko Naturaren Kudeaketa eta Babeserako goi mailako teknikari brebeterako (BTS) ikasleen Arberatze-Zilhekoako baratze partekatuko lanaren abian ematea; leku hori laborantza ekologikoko baratze gintzarakoa da.

Antolaketa: Arberatze-Zilhekoa herria eta Errecart institutua
Argibideak: 07 86 59 44 68



Aiherrako harrobi zaharren berriztapena

AIHERRA – Harrobi zaharra

→18:00

Gunearen bisita – Ohartarazte ekintza

Dinamika kolektiboa abian emateko eta tokiko biztanleak lekuaz jabe daitezen bultzatzeko berriztatu leku horren etorkizunari buruzko gogoeta. AUDAP agentziak proposaturiko animazioa (argazki muntaketa, Maketa, Egoeran kokatzea) lekuaren etorkizunerako aukera bat edo hainbat eskuratzeko.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta AUDAP
15:00: eskoletako haurrentzako animazioak (Armand David lizeoarekin partaidetzan) / 18:00: orori zabalik.
Eguraldi txarra balitz, ororen etxera aterpetzea.
Argibideak: 05 59 29 16 47



Nola hartzen du parte hiri antolaketak garapen iraunkorraren urraspide batean?: erdiko plaza baten berritzea

AHETZE – KULTUR XOKOA aretoa

→18:30 - 20:30

Mintzaldia

Nola bilakatzen diren ingurumen jokagaiak antolaketa egitaraua gauzatzeko gogoeta eragile: lurrag iragazgaitz izateari uztea, lurren izaerari eta erabilerei egokitu landareen hautua, paisaien begiramena... Mintzatzaileak: Isabelle JOLY (arkitektoa), Marie LAURENT (paisaia antolatzailea), Paisaia antolatzeko Gastel bulegoa, eta Michel ARRAYET (geometrialaria).

Antolaketa: Ahetze herria
Argibideak: 05 59 41 95 20



Bioklimatismoa: zentzu onez arituz!

BAIONA – Publikoen lantegia, Gosse karrika

→18:30 - 20:00

Ohartarazte ekintza

Ohartarazpena arkitektura tradizionalak eraginiko bioklimatismoaren printzipioen gainean, eta printzipio horiek egungo hiritartze eta eraikitze moldeetan birsortze baten aztertzea. Irudiz nasaiki hornitu ekarpen teorikoa eta maketa gaineko ariketa praktikoa.

Antolaketa: Baiona Hiria, Nobatek eta Bouriette & Vaconsin lantegia
Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua (20).
Argibideak eta izen emateak: Baiona Hiriaren webgunea / 05 54 07 09 24

10



11



URRIAK
14
OR.



Amikuzen bilketa aldatzeari buruzko ohartarazpena

DONAPALEU – Azoka

→9:00 - 12:00

Ohartarazte ekintza

Erabiltzaileak etxeko hondakinen eta antzekoen bilketa sistema berriaz eta sailkapen agindu berrietaz ohartaraztea.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE), eta Bil ta Garbi Sindikatu Mistoa



Energia % 100ean berriztagarriak erabiltzen dituen lurraldearen alde aritzea

URRUÑA – Herriko Etxeko plaza

→9:30 - 17:00

Formakuntza

Formakuntza jardunaldia energia trantsizioaz, urritasunaz, eraginkortasunaz eta % 100ean berriztagarri den ekoizpenaz. Lurraldeko energia bilanaren eta eragileen aurkezpen osoa, eta beste lurraldeetan daramatzaten asmo handiko energia estrategien ezagutzea.

Antolaketa: Bihar eta CEDIS Hautetsientzat (EHE eta herrietakoak). Izena eman behar da. Argibideak eta izen emateak: Cedis Formation webgunea

H2Ommе erakusketa: uraren jokagaiak munduan

MAULE LEXTARRE – Mediateka, Zerbitzuanitzeko zentroa

→14:00 - 18:00

Erakusketa

Les Petits Débrouillards elkartearen erakusketa ura munduan banatzen den modua ulertzeko, hartaz ludikoki eta zientifikoki gogoetatzeko, bai eta ura Frantzia eta beste lekuetan kudeatzeko moduez edota uraren funtzionamendu ekologikoan gizakiek duten eraginetaz gogoetatzeko ere.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Argibideak: 05 59 28 78 88



Inter'haie: hesiek klima aldaketari buru egiteko duten interesaz

GAMARTE – GAEC Biok

→14:00 - 17:00

Ibilaldia

Ibilaldia hesiek hala bioaniztasunaren alde nola inguratzen dituzten laborantza sailen alde ematen dituzten zerbitzu balioetsuei buruz bai eta klima aldaketaren eragina murrizten laguntzen duten natura inguruneek jasaten dituzten jokagaii buruz.

Antolaketa: Euskal Herriko IEZI elkarte
Izena eman behar da.
Argibideak eta izen emateak: Euskal Herriko IEZI elkartearen webgunea / cpie.pays.basque@orange.fr / 05 59 37 47 20 - 06 74 88 70 21



Gainberoketa eta higadura: nola gure itsasbazterra egokitu?

ANGELU – Itsas Lekuan

→18:00

Mahai ingurua

Nola aurreikusi gure itsasbazterreko hirien antolaketa iraunkor eta orekatua klima nahasmenduei loturiko tentsio eta agindu elkarkontrajarrien testuinguru batean: jardunen eta hornikuntzen gibelatzea antolatzea lurra artifizialdu gabe; jadanik artifizialdurik diren lurretan trinkotzea berogune berriak sortu gabe; eta abar. Dauden jokagai guztietaz ohartu eta aterabide zehatzak proposatzeko, mahaiaren ingurura honako hauek bilduko dira:

Jean-René ETCHEGARAY
Euskal Elkargoaren lehendakaria

Nicolas CASTAY
zuzendaria - GIP Littoral

Colin LEMÉE
Itsasertzeko arriskuen gaineko ingurumen psikologian doktorea
Auxilia

Laurence ROUÈDE
Lurraldeen garapenaren eta zuzentasunaren bai eta kontraktualizazioen ardura duen lehendakariordea – Akitania Berriko Eskualdea

Ekitaldia amaitzean janari hotz zenbait.


Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Izena eman behar da. Argibideak eta izen emateak: Euskal Elkargoaren webgune
KLIMA astearren orrialdea

François DURQUETY
Milioi bat zuhaitz landa ditzagun proiektuaren arduraduna
Bordeleko metropolia

Guillaume CANTAGREL
Garonako parke handiaren programaren zuzendaria – Tolosako metropolia

Sylvanie GRÉE
Nantes - D'ICI LÀ agentziaren zuzendaria


Lionel SEVILLA
Natura ondarearen eta bioaniztasunaren arduradun zinetotzia – Baionako Hiria



12



13



URRIAK
14
OR.



Mugigarritasunaren Freskoa: norbanakoen mugitzeen karbono jokagaiak

ITSASU – Elkargoaren Errobi Eremuko Etxea

→18:00 - 21:00

Lantegia

Klimaren Freskoaren bidetik, Mugikortasunaren Freskoa jendeen mugitzeen karbono jokagaietaz ohartarazteko xedea duen lantegia da, nor bakoitzaren mugitzeetan nola kolektiboki ere, nola mugitze urriagoa erabil litekeen hobe ulertzeko.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta La Fresque du Climat elkarte

Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua (14).

Argibideak eta izen emateak: Fresque du Climat elkartearen erakusmahaiari, urriaren 08an, KANBOKO Txirrinda Jardunaldian/ contact.errobi@communaute-paysbasque.fr



Zuhaitzen garrantziaren gaiari buruzko arratsa

OZARAINE – Herri aretoan

→19:30

Zine-eztabaida

«Le génie des arbres» filmaren proiektzioa; gero, Jacques Luquet Oihanen Nazio Erakundearen mintzaldia eta harekin solastea.

Antolaketa: Ozaraine herria

Argibideak: mairie@osserain-rivareyte.fr / 06 85 14 89 23



«Nora joan zaizkigu ipurtargiak?»

HAZPARNE – Haritz Barne zinema

→20:30

Zine-eztabaida

Corentin Kimenau zinemagilearen «Où sont passées les lucioles?» filmaren proiektzioa eta eztabaida; argizko kutsaduraren gaiari buruzko solasaldia Stéphane Hermaszewski, Gaueko Zerua eta Ingurumenaren Babeserako Nazio Elkartearen tokiko ordezkariarekin.

Antolaketa: Hazparne Herria

Argibideak: Hazparne Herriaren webgunea

URRIAK
15
LAR.



Ibilaldia, Burge-Erreitiko ondarea eta etxaldeak ezagutzeko

BURGUE-ERREITI – Erreitiko Herriko Etxea

→9:30 - 13:00

Ibilaldia

9 kilometroko ibilaldia sailkaturiko ondarea, herrixkako etxe ederrak, ezagutzeko, betiere etxaldean tokiko ekoizpenak ezagutzeko denbora hartuz. Ibilaldia amaitzean, tokiko produktuen dastaketa. Gero, «Fresque Agri'Alim» animazioa 14:00 orenetan.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoa

Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua.

Argibideak eta izen emateak: 05 59 56 05 11



Euskal Herriko zentral hidroelektrikoen atea zabalik

DONIBANE GARAZI – Hiri barnea

→10:00 - 12:00 / 15:00 - 17:00

Atea zabalik

Lurraldean diren antolaketa hidroelektrikoen ezagutzea, Euskal Herriko ibaiak baliatuz tokiko energia berriztagarria ekoizten duten hainbat zentral hidroelektriko bisitatuz: Instalazioen bisita, ekoizleen taldekako urraspidearen azalpena. Uharteko Eiherraren bisita. Gidaria: Jean-Pierre Galant.

Antolaketa: Ipar Euskal Herriko Hidroelektrizitate ekoizleen batasuna

Izena eman behar da.

Argibideak eta izen emateak: 06 32 93 19 61



Ziburu Iraunkor

ZIBURU – Erabileranitzeko lekua, Barten bidea

→10:00 - 17:00

Ohartarazte ekintza


Ingurumenaren babesaren aldeko eta klima jokagaien gainean ohartarazteko ekintzen herrixka: ororentzako lantegi eta jokoak, erakusguneak, erakusketak, liburutegi iragankorra, arte erakustaldia, ahamentxoak... Honako hauekin: Bil Ta Garbi, IEZI Euskal Itsasbazterra, etab.

Antolaketa: Ziburu herria


Izena eman behar da pour certains ateliers.

Argibideak eta izen emateak: Ziburu webgunea
animations@mairiedeciboure.com / 06 10 75 45 10

14



15



URRIAK
15
LAR.



H2Ome erakusketa: uraren jokagaiak munduan

MAULE LEXTARRE – Mediateka Zerbitzuanitzeko zentroa

→10:00 - 12:30 / 14:00 - 17:00

Erakusketa

Les Petits Débrouillards elkartearen erakusketa ura munduan banatzen den modua ulertzeko, hartaz ludikoki eta zientifikoki gogoetatzeko, bai eta ura Frantzia eta beste lekuetan kudeatzeko moduz edota uraren funtzionamendu ekologikoan gizakiek duten eraginetaz gogoetatzeko ere.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)
Argibideak: 05 59 28 78 88



Talde autokontsumoa Hazparneko lurraldean

HAZPARNE – Elgar zentroa

→10:00 - 12:00

Aurkezpena

Izpindar elkarteak Hazparneko Lurraldean tokiko argindar kontsumo zuzena eta ingurumenaren begiramenezkoa egitearen aldeko talde autokontsumorako proiektuaren aurkezpena.

Antolaketa: Izpindar
Argibideak: Izpindar webgunea / contact@izpindar.fr / 06 16 29 97 83



Mauleko zentral hidroelektrikoak bete dituen 130 urteak ospatzen ditu

MAULE-LEXTARRE – Pasteur karrika 8

→10:30 - 12:00

Gunearen bisita

Mauleko zentralaren historia, bilakaera eta funtzionamendua ezagutzeko, 130 urtetik hona ari baita argindarra ekoizten.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta Christine Etchegoyhen
Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua.
Argibideak eta izen emateak: 06 82 69 54 12



Itsasertzeko arriskuen kudeaketa estrategia Ipar Euskal Herrian

HENDAIA – Asprotstipi, Euskal Erlaitzaren Etxea

→10:30 - 12:00

Mintzaldia

«Itsasbazterra mugimenduan» nazio mailako erakusketaren aurkezpenaren harira eta Ipar Euskal Herrian itsasertzeko arriskuaren kulturaren aldeko ARRISKUA proiektuaren barnean, IEZI Euskal Itsasbazterren mintzaldia, hobe uler dezagun Euskal Elkargoak gure lurraldean daraman itsasertzeko arriskuen kudeaketarako tokiko estrategia.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta IEZI Euskal Itsasbazterra
Argibideak: IEZI Euskal Itsasbazterra webgunea / 05 59 74 16 18



Otsokop atea zabalik

BAIONA – de Lattre de Tassigny etorbidea 1

→11:00 - 22:00

Ateak zabalik

Besta eguna Otsokop-en: Otsokop kooperatibaren tokiko 30 ekoizle eta eskulangileren produktuak ezagutu eta dastatzea. Otsokop supermerkatua ezagutu/bisitatzea. Taloak, ostalua eta musika egun osoan zehar. 0 hondakin lantegiak, eskugain ttipia dutenentzako menuak, Do It Yourself lantegiak, “Fresque climat”, haurrentzako animazioak, filmen proiektzioak eta mintzaldiak elikaduraren eta garapen iraunkorraren inguruan.

Antolaketa: SCIC Otsokop
Argibideak: Otsokop webgunea



Fresque Agri'Alim

BURGUE-ERREITI – Erreitiko herriko etxea

→14:00 - 17:00


Lantegia

Lankidetzan lantegi ludikoa, laborantzaren eta hazkurri industriaren munduko finantzen arteko harreman korapilatsua eta horrek bioaniztasunean eta gizarteetan duen eragina ulertzeko gai den talde adimenean oinarritua. Animazio hori etxaldean eta baserrialdeetako ondarearen inguruan egin ibilaldiaren ondoren dator.


Antolaketa: Communauté Pays Basque et La Fresque du Climat
Izena eman behar da. Leku kopuru mugatua.
Argibideak eta izen emateak: 05 59 56 05 11



16



17



URRIAK
15
LAR.



Ene planeta, ene osasuna

ANGELU – Urrezko hondartza

→14:00 - 17:00

Ohartarazte ekintza

Hondakinen bilketa hondartzan eta erakusguneen animazioak lurraldeko egitura sanitario eta mediko-sozialek eginik.

Antolaketa: CBuru Osasunaren Tokiko Batzordea, GEM Caminante, Caradoc eta Amade klinikak, CHCB, SAMSAH Haeikin (ASEI), Pirinio Atlantikoen Departamendua, PEP64, Cassin lizeoa, Surfrider
Argibideak: clsm@ch-cotebasque.fr / 05 59 44 42 20



Aturriko barten paisaiaren irakurketa

LEHUNTZE

→14:00 - 17:00

Ibilaldia

Aturriko Barten bisita gidatua, azalpenekin, klima aldaketaren gaia paisaiaren irakurketa ludiko eta pedagogiko baten bidez. Euskal kostaldean arriskuaren kultura garatzen duen ARRISKUA proiektuari loturik. Gidaria: Alistair Brockbank, geografo/geomorfologo formakuntza duena.

Antolaketa: IEZI Euskal Itsasbazterra eta Lehuntze herria
Izena eman behar da.
Argibideak eta izen emateak: IEZI Euskal Itsasbazterren webgunea
05 59 74 16 18



Uholde simulazioa Donapaleun

DONAPALEU

Ohartarazte ekintza

Donapaleuko salbamendurako herri plana abiaraztearen simulazioa antolatzea, egoeran kokatzeko ariketa eginez eta salbamendu neurriak Predict Services delakoak pixkanaka aktibatuz.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta Donapaleu herria
Udal langileentzat, herri hautetsientzat eta bertako biztanleentzat. Izena eman behar da. Argibideak eta izen emateak: dlapebie@saint-palais.fr



Mintzaldia: Lurraldea, Laborantza eta Elikadura

LEHUNTZE – Kiroldegi areto txikia

→18:00

Mintzaldia

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak elikadurari eta elikadura erresilientziari buruz antolatu mintzaldia.

Antolaketa: Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG)
Argibideak: contact@lahonce.fr

URRIAK
16
IG.



Garazi bizikletaz

DONIBANE GARAZI

→9:00 - 12:30

Bizikleta eguna

Bizikletaren inguruko animazioak: bizikleta ibilaldia Donibane Garazin eta inguruetan, bizikleta konpontzeko lantegia, haur eta helduentzako animazioak (pedagogia zirkuitua, ...), bizikleta elektrikoaren entseatzeko erakusgunea, bigarren eskuko bizikleta eta osagarrien merkatua.

Antolaketa: Donibane Garaziko Agenda 30 delakoaren gidaritzaren batzordea
Argibideak: 05 59 37 00 92

19



20





climataction-paysbasque.fr

   @communautePB

 **pays
Basque
euskal
HERRIA**

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOIA